

LEIOA. Herri olinpiadak eta Berri Txarrak egongo dira bihar



VERÓNICA MUÑOZ
Ekitaldien egitarau zabala eratu dabe, euskaltegiaren ganeko argazki erakusketea besteak beste.

Izen eta logotipo barria ipini deusie Udal Euskaltegiari

Mastitxuren 20. urteurrena ospatzeko ekitaldi asko antolatu dabez

Verónica Muñoz |

Leioako Udal Euskaltegiak 20 urte bete dauz. Urteurren berezia atxakitzat hartuta, hain zuzen be, zentroaren izena eta logotipoa aldatzea erabagi dabe, aro barriari egokitu guran. Izan be, Leioako Udal Euskaltegia Mastitxu Euskaltegia izango da aurrerantzean. Izen hori aukeratu dabe, Leioako Udal Euskaltegia dagoen orubeak antxina izen hori eukalako. Logotipoa be aldatu gura izan dabe, irudia erakargarriago bihurtzeko, diseinatzailearen berbetan.

Horrezaz ganera, urteurrena ospatzeko ekitaldi batzuk eratu dabez. Jon Arretxe idazleak berbaldea emon eban orain gitxi herrian, eta euskaltegiaren ganeko bideoa be egin dabe.

Bihar jarraituko dabe ekitaldia-kaz, ganera. Euskerearen II. Olinpiadak egingo dabez, eta Berri Txarrak taldeak joko dau.

Sakoneta kiroldegian izango dira euskerearen aldeko olinpiadak, arrastiko 16:30etik 21:00etara. Hainbat proba egongo dira: graffiti, txalapartea, arku-jaurtiketea, igela eta fardo altzaketea, beste askoren artean.

Eta iluntzerakoan, 22:00etan hasita, rock kontzertua emongo dabe Sakoneta eskoletako patioan. Berri Txarrak taldea aukeratu dabe herriko ikasleek Mastitxu Euskaltegiaren urteurrenean jo daian.

Erakusketak eta antzerkia

Bagilean erakusketa bi zabalduko dabez Mastitxun, pintura eta

lore prentsatu ez eginiko beharrak eta lorakaz eginiko beharrak erakusteko hurrenez hurren. Eta datorren hilaren 18an, ganera, antzerki emonaldia eskainiko dabe Lamiako Antzokian. Laba Teatro konpainiak *Printze txikia* beharra estreinauko dau Leioan.

Urteurrena dala eta, Mastitxukoek azkenengo 20 urteotako irudiak batu dabez, eta euskaltegiaren historia kontetako argazki erakusketea prestatu dabe. Datorren irailera arte erakutsiko dabe herri osoan erakusketa hori, besteak beste Sakonetan, Mastitxu Euskaltegiaren, San Bartolomen eta Pinuetan. Eta urtea amaitzeko, ganera, euskerearen aldeko jardunaldiak eta festa handia egingo dabe pentsauta daukie.

BARRIKA. Proiektua preminazkoa da oinezkoen segurtasuna bermatzeko

Hasi dabez beharrak, Elexalde Larretxe eta San Telmo auzoak espaloi luze bategaz lotzeko

V.M. |

Barrikako Elexalde ingurua Larretxe eta San Telmo auzoakaz lotuko dauen espaloi handia egiteko beharrak martxan dagoz. 889 metroko bidea egingo dabe, zaharren etxetik Cantarranaseko eskaileretaraino. «Aspaldi inguruetakoz auzokoek eginiko eskaerari erantzuteko, eta gaur egun hortik ibiltea oi-

nezkoentzat oso arriskutsua dalako» egingo dabez beharrok, Barrikako alkate Jose Maria Ezpeletak azaldu dauenez. Bidea egiteaz ganera, ur sarea be atonduko dabe.

Beharrok Barrikako Udala eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean egingo dabez, sinatu daben itunari esker hain zuzen be. Aldundiak, ganera, beste bide bat egiteko erronea hartu dau,

San Telmotik Plentziako metro geltokiraino. Horren truke, Udalak eregiten dagozan espaloi egiteko beharrak ordaindu behar izango dauz, eta ingurua atontzeko obra guztia be bai.

Espaloiaren bigarren zatia egiteko beharren ondorioz, beste bide batzuk topau beharko dabez trafikoa bideratzeko, baina oraindino ez dagoz zehaztuta aldaketok.

BERANGO. Lan gehiago egingo dabez herrian

25.000 euro erabiliko dabez Karabigane auzoan aparkaleku barria atontzeko

V.M. |

Karabigane auzoan 45 auto lagateko aparkalekua egingo dabe laster, eta inguru horretan argiztapena eta errepi-dea atontzeko 25.000 euro-baino gehiago erabiliko dauz Berangoko Udalak.

Beste alde batetik, udalerrian aparkalekuen kopurua handitzeko helburuagaz, aparketako leku gehiago ipinteko asmoa daukie herriko agintariak Lehendakari Agirre etorbidean. Proiektu hori zemendirako egin gura

dabe, eta danetara aparke-tako 45 leku ipiniko dabez. Kurtze auzoan be errepi-dea atontzeko beharrak egingo dabez, eta proiektu horretarako 15.500 euro inguru ipiniko dabez.

Eta Simon Otxandategi etorbidean, azkenik, oinezkoentzako bide bi egingo dabez, inguruon autoak astiro-ago igaro daitezaz. Beharrotan 10.500 euro gastauko dabez. Errepi-dea atontzeko obrea be egingo dabe, eta 15.500 euro inguru erabiliko dabez horretarako.

EUSKAREA. Ekitaldiak egun osoan izango dira

Euskal Jaia egingo dabe Gorlizen eta Plentzian bihar, bederatzigarren urtez

V.M. |

Guztiok batera, gure hizkuntzarekin kalera lelopean egingo dabe bihar Euskal Jaia Gorlizen eta Plentzian, euskerea eta euskal kulturea sustatu guran, betiko lez. Goizean euskalgintzearen aldeko mezua irakurriko dabe Gorlizko udaletxean, eta ostean kalejireta, tailerrak eta jolasak egongo dira Iberre plazan. Bazkaria 13:00etarako eratu dabe, eta bazkaldu ostean Potxin eta Patxin pailazoak egongo dira Gorlizko frontoian.

Arrastian, ohiturea dan lez, Plentzian jarraituko dabe

ekitaldiakaz. 17:30ean antzezlan agertuko dabe Goñi Portal aretoan, eta abesteko aukerea be egongo da Untziola plazan. 20:00etan txokolata gozoa hartuko dabe euskaltzale guztiek, eta aldi berean bongolariek eta malabaristek jardungo dabe.

Herri afariagaz amaituko dabe eguna, Plentziako frontoian, gaueko 22:30ean. Sarrerak Goñi Portalen eta Gorlizko Kultur Etxean lortu leitezaz, 9 euroan. Horrezaz ganera, kirol eta kultur taldeei euskerearen alde parte hartzeko manifestua heldu arazo gura deusie datorren urteko Euskal Jaia begira.

AGENDA

GETXO

Pelikulea: *The others*, Areetako Gran Cineman, 20:00etan. Pelikulearen ostean, foruma. Sarrerea 2,40 euroan.

Kontzertua: Gorka Sarriegik kontzertua emongo dau Algortako The Piper's Irish Pub tabernan, Egizu egitasmoaren barruan eraturako Kultur Errotan. 20:00etan hasiko da, eta sarrerea doan.

SOPELA

Berbaldia: Gorka Jakobe Palaziok *El paso del texto al multimedia en las tecnologías inalámbricas* izeneko berbaldea emongo dau arrastiko 19:30ean, Modus Vivendi Hotelean.

GORLIZ

Berbaldia: Kontsumoaren ganeko

berbaldien zikloa. Gaur, *Etxebizitza*. *Erostea eta alokatzea*. Erakusketa Aretan izango da, aditu baten eskutik, arrastiko 18:00etan hasita.

ZAMUDIO

Euskal Astea: Kike Amonarriek eta Asisko Urmenetak *Euskeraz dibertitzeko manerak* izeneko berbaldi-ikuskizuna eskainiko dabe gaur, Lagatzu alkarteak antolatutako Euskal Astearen barruan. Dorretxean izango da, 20:00etan.

LARRABETZU

Literatura: Maiatz Ipar Eukal Herriko aldizkariak 20 urte bete dauz, eta urteurrena ospatzeko Larrabetzuko Bihotz Bakartien Klubak berbaldea antolatu dau gaurko. Luzien Etxezaharretak egingo dau berba, iluntzeko 20:00etatik aurrera, Larrabetzuko eskoletako liburutegian.